



DEIALDIA

Udal-plenoak **2020ko uztailaren 1an, arratsaldeko 19:00tan**, Udaletxeko Areto Nagusian ohiko biltzarra burutu behar duelarik, honen bidez deitzen zaizu, aipatu egun eta orduan bertara zaitezen. Bilkuran, atzealdean zehazten diren gaiak aztertuko dira.

Etortzerik ez bazenu, Alkatetza honi jakinaraztea eskatzen dizut, hala jasota gera dadin.

Oiartzun, 2020ko ekainaren 26a.

ALKATEAK,





2020ko uztailaren 1an, 19:00tan egingo den

UDAL OSOKO

OHIKO BATZARRALDIKO

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onarpena.
2. 2019ko Kontu Orokorraren onarpena.
3. Udal lanpostuen zerrendaren eta plantilla organikoaren aldaketaren onarpena.
4. Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta etxeko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzu-kontratuaren amaiera eta kontratuari atxikitutako ondasunak eta gainerako elementuen itzulketa.
5. Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerileku udal instalazioen emakida bidezko zerbitzu publikoaren kudeaketaren kontratua eteteko erabakien berri ematea, Alkateak premiazko eskumena egikaritzuz hartutakoa COVID-19ak eragindako alarma-egoera deklaratzearen ondorioz.
6. Lanbarren eremu logistikoa garatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalaren errepide sarean izandako aldaketak erregularizatzeko lursailen zesioak.
7. COVID-19ak eragindako ondorioei aurre egiteko Udal Ikastola Partzuergoari ekarpen berezia egitea.
8. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetzea.
9. Beste organoen jardueraren jarraipena.
10. Eskari-galderak.

=====